


# Nelson Mandela

(1918-2013)

Afrikaren  
hegoak





# Aro berri bat hasiko da



Mandelaren omenez paratutako irudia, haren etxe parean, Houghtonen, Johannesburgoko kanpoaldean, atzo. KIM LUDBROOK / EFE

Mandelaren heriotzak, Hegoafrikan ez ezik, atzerrian ere egundoko oihartzuna izan du, jada hil aitzinetik mitoa zen seinale. Hileta egin gabe, galderak hasiak dira zer izanen den Madibarik gabeko Hegoafrikaz.

## Mikel Rodriguez

**H**egoafrikaren historia garaikidean mugarri bihurtu da atzoko eguna, Nelson Mandela hil ondorengo lehen. Aspaldi zen Mandelak ez zuela inongo parte hartzerik politikan, eta ezta, beraz, herrialdea-

ren norabidea erabakitze esparruetan, baina haren heriotzak sortutako erreakzio sailak, omenaldi, elkarretaratze, eta abarrek argi utzi dute hegoafrikarrentzat aro bat bukatu dela eta bertze bat hasiko dela. Hil aitzinetik jada mundu osoan mito bihurtu zen *apartheid*-aren aurkako borrokaren liderra. Haren heriotzak irudi hori noraino haziko duen asmatu

ezinekoa da orain. «Beti maitatuko dugu Madiba, erakutsi zigulako posible dela gorrotoa eta amorrua gainditzea nazio eta gizarte berri bat sortzeko», adierazi zuen atzo Jacob Zuma Hegoafrikako presidentea.

Madibak azken hantsa bota zuenetik ehunka lagunek etenik gabe egin dute elkarretaratzea haren etxe parean, Houghtonen

(Johannesburgoko kanpoaldean). «Arraza eta adin guztietako», Hegoafrikako hedabideek nabarmendu dutenez, Mandelaren oinordekotzaren irudi bat erakutsi nahian. *Apartheid*-a erori zenetik, nazio oso baten gurasotzat hartu dute Mandela Hegoafrikan, eta heriotzean ere hala agurtu dute ordezkari politikoek, gizartearen bertze esparruetako

eragileek, karrikara atera diren herritarrek eta Interneteko erabiltzaileek. Bertze zortzi egunez luzatuko dute Madibaren agurra. Zuma presidentea jakinarazi duenez, estatu hileta heldu den asteartean egingen diote Mandelari Sowetoko estadioan. Asteazkenetik ortziratera arte, berriz, Mandelaren gorpua Union Buildingsen (presidentziaren egoitzan) edukiko dute erakusgai, Pretorian. Eta, azkenik, hilaren 15ean lurperatuko dute Qunun, hazi zen herrixkan.

## «Eguzkia aterako da bihar»

Mandelaren ondoren zer? Haren egoera larritu zenetik, galdera horrek eztabaida anitz sortu ditu Hegoafrikan eta Hegoafrikatik kanpo. Thabo Mbeki presidente ohiak (1999-2008, Mandelari hartu zion oinordekotza) «aro baten amaiera» ailegatu dela erran du. «Zer gertatuko da gurekin, orain gure aita hil denean? Guregana hondamendia heldu dela erran nahi du horrek?», galdetu zion atzo kazetariei Desmond Tutu gotzain eta Bakearen Nobel sari-dunak. Galdera erretoriko bat zen. «Batzuek iradoki dute bera joan ondoren gure herrialdea sutan erreko dela. Eguzkia aterako da bihar, eta hurrengo egunean, eta hurrengoan ere. Ez agian atzo bezain distiratsu, baina bizitzak aitzinera segituko du». Adiskidetzearraskatsua izan zela ziurtatzeko, Tutuk gogora ekarri du Mandelak 1995ean Betsy Verwoerdin egin zion bisita afrikaaneren Orania komunitatean —zurien etnia nagusia dira afrikaanerrak—. Hendrik Verwoerd *apartheid*-aren *arkitektoaren* alarguna zen Betsy. Mandelak «herrialdearentzat nahi zuen adiskidetasunaren irudia» izan zela uste du Tutuk.

«Afrikaaner gehienek hagitz sentimendu maitekorrak dituzte Nelson Mandelarekiko, eta ohore egingen diote haren oinordekotzari», baieztatu du Frederik de Klerk *apartheid* aroko azken presidentea. De Klerkek Mandelarekin negoziatu zuen erregimen arrazistaren bukaera, eta biek Bakearen Nobel saria jaso zuten 1993an. Beltzen eta zurien arteko gatazkarik leher daitekeenik ez du uste De Klerkek. «Orain gertatzen ari diren gauza batzuekin kritikoa naiz, baina uste dut Hegoafrikako nazioa bateratuta dagoela Nelson Mandelarekiko tristezian eta doluinean».

Mandelaren alderdiak, ANC Afrikako Kongresu Nazionalak, berriz, laudorioz eta esker oneko solasez betetako agiri bat argitaratu du. «Nazioak erraldi bat





Lurmutur Hiriko udaletxe pareta, atzo. Hor eman zuen Mandelak lehen hitzaldia aske gelditu ondoren. NIC BOUTHMA / EFE

galdu du, umiltasunaren, justiziaren, bakearen eta milioika lagunen itxaropenaren pertsonifikazio bat, hemen eta atzerrian». Oposizioko alderdiengan, gazte erakundeetan eta sindikatuetan aho batekoak izan dira Mandelaren aldeko hitzak.

#### Afrika osoak gogoan

Espero bezala, mundu osotik egin dira Mandelaren aldeko adierazpenak. Afrikan, noski, eragin berezia utzi du *apartheid*-aren aurkako borrokariaren heriotzak. AB Afrikako Batasunak «panafrikanoaren ikurrak» deitu dio Mandelari. «Afrika askatzeko bakea erabili izanak erakutsi du errukia eta barkamenak tokia dutela gobernuan, kolonizazioak eragindako banaketan eta gure zaurien minaren gainetik», adierazi du, berriz, John Dramani Mahama Ghanako presidentea. Independentzia eskuratu zuen Saharaz hegoaldeko lehenbiziko herrialdea izan zen Ghana (1957), eta *apartheid*-aren aurkako mugimenduentzat erudugarri bihurtu zen. Nigeriatik, Goodluck Jonathan presidentea erran du Mandelaren borroka erudugarria izan dela «munduko herri zanpatuentzat». Hegoafrikarekin Kontinenteko erraldoi ekonomikoa izateko lehian ari da Nigeria. Saharaz iparraldera, Aljeriak, garai batean Mandelari eta bere kideei gerrilla entrenamendua eman zien herrialdeak, zortzi egunez edukiko ditu banderak makila erdira, eta Egiptok hiru eguneko dolua ezarri du.

Hegoafrikaren ondoko herrialdeetan eragin berezia izan du Mandelaren heriotzak, guzkiekin sartu baitzen gatazkan *apartheid*-aren estatua. Jose Eduardo dos Santos Angolako presidentea adierazi du Mandelak «ondorengo belaunaldientzat ezinbertzeko erreferentzia» izan dela, eta Mozambikeko presidentea Armando Guebuzak «gale-ora ordezkazina» izan dela

#### Erreakzioak

«Nahiz eta bagenekien egun hau ailegatuko zela, deusek ezin digu kendu galera handi honen sentipena. Askatasunaren alde egin zuen borroka etengabearengatik munduaren errespetua irabazi zuen».

JACOB ZUMA  
Hegoafrikako presidentea

«Mandelak akatsak bazituen. Haren ahulune handiena bere kamaradei eta alderdiari zien leialtasuna zen, haiengatik 30 urte igaro zituen espetxean. Prestakuntza eskasako ministroak denbora luzeegian mantendu zituen karguan».

DESMOND TUTU  
Bakearen Nobel saridun hegoafrikarra

«Nahiz eta aurkari politikoa ginen, eta nahiz eta gure erlazioa anizteta gatazka tsua zen, beti gai ginen une larriretan elkartu eta negoziazio prozesuan sortu ziren krisi ugari konponbide bat bilatzeko».

FREDERIK DE KLERK  
'Apartheid' garako azken presidentea

«Nire lehenbiziko ekintza politikoa, nire bizitza politikan nahastu nintzen lehenbiziko aldia *apartheid*-aren aurkako ekintza bat izan zen. (...) Eta munduan anitzek bezala, ezin dut neure burua imajinatu Mandelaren eredu gabe».

BARACK OBAMA  
AEBetako presidentea

«Deusek, ez eta preso bakarre batek ere, ezin zuen gizonezko hori eraitsi: ez espetxeek, ez gehiegikeriek, ezta borroka politikoa ere. Debozioa zion askatasunaren ideari, eta munduko azken *apartheid*-a bukatu zuen».

MIKHAIL GORBATXOV  
SESBeko presidentea ohia

erran du. *Apartheid*-a zuzenean pairatu zuten bertze bi herrialdeetan ere, Namibian eta Zimbabwen, heriotzak hagitz oihartzun zabalak izan du.

#### Kontsentsua munduan

Iraganean, Mandelari boterearen aldetik eman zitzaion tratuarekin ironia erabili zuen atzo Tutuk. «Terrorista hori gaur egun mundu guztian salbuespenik gabe onartzen dute adiskidetasunaren, barkamenaren eta eskuzabaltasunaren ikono eta sinbolotzat». AEBek 2008ra arte mantendu zuten Mandela *terroristen* zerrendan, halaxe izendatu baitzuten *apartheid*-aren aurka borrokan ari zenean. Baina 2008rako hari buruzko ikuspegia aski aldatua zuten. Barack Obama presidentea izan zen herenegun arratsean munduko lehenbizikotarikoa Mandelari buruz mintzatzeko. Sinbolismo handiko agerraldia izan zen, AEBetako lehenbiziko presidente beltza *apartheid*-aren aurkako liderra omentzen. «Ezin dut nire burua imajinatu Mandelaren eredu gabe». Zaila da aurkitzea gaur egun hain kontsentsu zabal sortuko duen lider bat, Iranek eta Israeliek ere goraipatu baitute Mandela. Tel Avivek, gainera, bere historiari bizkar emanez, *apartheid*-aren Hegoafrikak nazioartean izan zuen aliatu handiena izan baitzen, eta lotura estuak eduki zituzten arlo militarrean eta nuklearrean.

Izan ere, *apartheid*-aren Hegoafrika bakartuta egon zen, bai, baina Gerra Hotzaren testuinguruan ANC eta Mandela, komunistekin aliatuta, anizteta eragile deserosoak ziren Mendebaldearentzat, eta gobernuak, berriz, pieza erabilgarria. ANCK garai hartako borrokan aliatu erabakigarria izan zuen Kuba, eta Raul Castro presidentea telebista publikoan eskutitz bat irakurri du. «Mandelaz inoiz ezinen dugu iraganean solas egin»

## ‘Enkosi’, Madiba

### Urtzi Urrutikoetxea

2000. urtean sartzeaz gainera, egunkari batetik galdetu zidaten uzteaz ginen mendea nork markatu ote zuen. Izen bakarraren ordeze, bi aipatu nituen: Vladimir Iliitx Lenin, eta Nelson Mandela. Horien pare edo are aurretik, beste iraultza bat ere azpimarratu beharko litzatekeela uste dut, feminista. Edozelan ere, Madibaren figurak badauka neurtzeko oztipo bat: neurtezina dela. Ezin ezin pertsona garaikideekin alderatu.

Badago Mandelaren biografian alde bat, gurean deliberatuki ezkatutu (batzuek) eta azpimarratu (besteek) egiten dena. Mandela *terrorista* da. Madibak argi adierazi zuen: «terrorista deitzen zidaten atzo, baina espetxetik irteetan, askok besarkatu ninduten, etsaiek ere bai, eta hori esan ohi diet terrorista deitzen dietenei bere herria askatzen borrokan ari direnei». Alde honetan zentzugabeena, Mandelak borroka armatuaz daukan ikuspegia gordetzea da. Jarrera zintzo eta bakezaleena baita. Indarkeriaren aurkako hautua espetxetik irten eta Hegoafrikako herritar guztiengatik estatu berria eratzeko duenean dator, herrialdeak izan zitzaizkeen mendeko tentazio guztiak ateak itxita. 30 urte lehenagotik idatzietan berriz, borroka armatuaren aldeko hautua azaltzen du. «Esan nuen okerra eta immoral gure herria estatuaren eraso armatuz zapaltzea zela, inolako alternatibarik eskaini barik. Jendeak bere kabuz armak hartu zituela aipatu nuen. Indarkeria hasi egingo zen, geuk ekin zein ez. Ez ote zen hobe geuk gaitzaren indarkeria hori, zapalkuntzaren sinboloak — eta ez pertsonak — erasotzen genien printzipioen arabera?». Zapalkuntza

Madibak argi adierazi zuen: «Terrorista deitzen zidaten atzo, baina espetxetik irteetan askok besarkatu ninduten, etsaiek ere bai»

Tambok 'sortu' zuen Mandela, baina ezin ulertu Kathrada, Slovo edo Biko barik. «Mandelak dioenez», edozein argudiotarako indartzaile da gaur

anckerrenaren aurrean, autodefentsa mekanismoaz dihardu. Ez dirudi inor aurka egoteko berbak direnik. Etxeko betaurreko deformatuekin ikusteak dakar arazoa, baina, indarkeria «beti, edozein egoeratan» gaitzegarri den argudio txepelak. Ageriko gauza bi adierazten baititu Madibak: indarkeriaren aurka egotea dela iraultzailearen betebeharra, baina zapalkuntza egoera batek horretara bultzatzen duela — eta beraz, «indarkeria noiz» galderari erantzuten dio —, eta bigarrenik, zapalkuntza egoera anker horretan ere, defentsa indarkeriak beharrezko dituela parametro etikoa.

«Mendi handi batera igo eta gero, igotzeko beste mendi asko daudela baino ez duzu aurkitzen», Mandelaren aipu ezagunetarik irakurtzen dudanean, *deye mon, gen mon* (mendien atzetik, mendi gehiago) kreolerazko esaldia dator kit gogora. Herrialdeko zailtasunak aipatzeko darabilte haitiarrek esaldia. Haitiko iraultzak 1804an esklaboen lehen garaipen sendoa ekarri zuen, eta Ameriketako herrialde behartsuena bihurtu dute. Haititik Barack Obamarak Mandela dago bidean. Presidente beltzak ohore egin dio Madibari, hura gabe ezin Etxe Zurian irudikatu. Madibak erbestean hartu zuen Jean-Bertrande Aristide haitiar lehendakaria. Mandela itsasargia zen, baina sarri gogoratu zuenez, garaipena ez zen berea, argi emateko hartu zuen herriak gainditu zuen *apartheid*-a.

Ia ehun urteko erraldoia da, bizitza sinbolo, espetxetik lehen-dakaritzara eta ontasunaren irizpide moral bihurtuta. Tambok sortu zuen Mandela, baina ezin ulertu, Kathrada, Slovo edo Biko barik. «Mandelak dioenez», edozein argudiotarako indartzaile da gaur. Pertsona, gero sinbolo eta azkenik mito, ohiko bidea aldearantzikatu eta atzera indar guztiz ageri da. Mugimenduko buru, herrialdeko presidentea, *apartheid*-aren aurkako borrokari... eta halako batean, Irlandatik Euskal Herrira datorkigu Hego Afrika. Mandelaren fundazioa, Afrikar Kongresu Nazionala, dozenaka elkarte biltzen dituen mugimenduen eskualde bostekoa ematen dio eta Euskal Herria ere, prozesu berri batera dator. «Betik dirudi ezinezko, eginda dagoen arte», eta irribarre zabala. Hegoak iparrari ekarri digu lezioa. Eta gure xumean, badugu zer irakatsi, xhosera, zuluera eta beste hizkuntzekin zelak jokatu asmatzen ez dakien herrialdean, ofizialtasun testimonialetik harago. Baina egongo da astirik horretarako. Gaur, eskerrik asko, *enkosi*, Madiba..



## Samara Velte

Brian Currinek (Pretoria, 1950) gogoan du oraindik hamahiru urterekin irakurri zuen titulu bat: «ANCko talde komunista eta terrorista bat» atxilotu zutela Johannesburgoko Rivonia auzoan. Hori da Nelson Mandelaz duen lehen oroitzapena: «Atxilotu zuten haren ostetik, haren izena eta akusatutako beste hamabi gizonenak oso ezagun bihurtu ziren Hegoafrika osoan, baita klase ertaineko familia zuri apolitikoetan ere».

**G Apartheid-aren azken urteetan, abokatu gisa ari zinen lanean, eta Giza Eskubideen Aldeko Abokatuak elkarteko burua zinen. Nolagorazioen duzu arrazagatiko diskriminazioaren aurkako kanpaina osoa?**

**E Apartheid-aren aurkako mugimenduak urte asko zerematan martxan, eta guk bat egin genuen harekin. Garai hura hegoafrikar guztiontzat zen zaila eta arriskutsua, emozionalki eta fisikoki, iritzi eta inplikazio politikoak gorabehera. Gazte zuriak armadara deitzen zituzten auzo herrialdeetako gerretara joateko, edo Hegoafrikako gune istilutsuetan patruilatza behartzen zituzten. Umkhonto we Sizwe, ANCren talde armatua, gero eta aktiboagoa zen: segurtasun indarrekin nahieran hiltzen zituzten zibilak, eta horri erantzuteko, helburu zibil txikiak bonbardatzen hasi zen erakundea. Komunitate beltzetan geroz eta istilu gehiago zeuden; hirietan, segurtasunak asko egin zuen behera; erregimenaren giza eskubideen urratzeak, berriz, erruz ugariatu ziren.**

**G Presioa handia izango zen.**


**E Borroka eta sakrifizio pertsonal askoko garaia izan zen niretzat eta nire familiarentzat. Beste hainbat ekintzaile bezala, guri ere jazarri ziguten eta mehatxatu gintuzten. Une batean pistola bat ere alokatu nuen; ohe alboan edukitzen nuen gaueetan. Emazteari telefonoz mehatxu egiten zitoen, gure seme-alabak bahituko zituztela. Noiz edo noiz nire gurasoen etxean hartu behar izan zuten babes. 1991n, frogatu zuten segurtasun indar publiko batzuk nahastuta zeudela hilketa sorta batean —*hirugarren indarra* deitzen genion—, eta Hegoafrikatik alde egin genuen denboraldi batez.**

**G Zurien artean, nolako zen mobilizazioa?**

**E Batzuk aritzen ziren askapen mugimenduan, baina, oro har, biztanleria zuriaren zati txiki bat baino ez ziren. Talde zibilen bidez babesten zuten, gehienbat, borroka.**

**G Apartheid-aren aurkako sinbolo ez ezik, kanpainaren zutabe nagusia ere bihurtu zen Mandela askatzeko eskaera. Zergatik hartu zuen halako garrantzia?**

**E Mandelaren espetxealdiki**



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Brian Currin · Abokatu

## «Bagenekien Mandela aske geratzean amaituko zela 'apartheid'-a»

Giza eskubideen aldeko ekintzailea zen Brian Currin 'apartheid' garaiko azken urteetan; Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordean jardun zuen gero. Trantsizioaren argi eta ilunak ezagutzen ditu.

mezu argi bat ematen zion munduari, Hegoafrikara joan gabe ere: *apartheid*-a bizirik eta indartsu zegoela. Behin betiko askatu beste hainbat ekintzaile bezala, guri ere jazarri ziguten eta mehatxatu gintuzten. Une batean pistola bat ere alokatu nuen; ohe alboan edukitzen nuen gaueetan. Emazteari telefonoz mehatxu egiten zitoen, gure seme-alabak bahituko zituztela. Noiz edo noiz nire gurasoen etxean hartu behar izan zuten babes. 1991n, frogatu zuten segurtasun indar publiko batzuk nahastuta zeudela hilketa sorta batean —*hirugarren indarra* deitzen genion—, eta Hegoafrikatik alde egin genuen denboraldi batez.

**G Gerora Mandelaz eman den irudia bakearen eta indarkeria ezaren sinboloarena da. Batzuetan, borroka armatuak Hegoafrikako prozesuan betetako funtzioa ahazten da. Ezote da gehitxo santifikatzen?**

**E** Mandela santu bihurtzen duena injustizia bat egiten ari zaio.

Ez zen inoiz santu bat izan. Giza-ki hauskor eta akastuna zen, beste guztiok bezala: horregatik zen pertsona eta lider aparta. Bazituen indarra eta gaitasuna bere emozioak kudeatzeko, aurreiritziak gainditzeko, aurkariaren ikuspegiak errespetatzeko eta etsaiairengan gizatasuna bilatzeko. Askatasunaren eta justizia-

«Mandela santu bihurtzen duena, injustizia bat egiten ari zaio»

«Herritarren bizi maila ez da hobetu: horrek kalte handia egin dio adiskidetzeari»

ren alde hiltzeko prest egoteak ez du haren handitasuna gutxitzen, kontrakoak baizik. Eta ez zeukan arrazoirik borroka armatuarengatik barkamenik eskatzeko. Estrategia hura ANCren azken aukera zen, 50 urtez zuriaren nagusi-

tasunaren eta injustizien aurka erresistentzia baketsuan aritu ostean. Ez zen terrorista bat, askatasunaren aldeko borrokalari bat baizik.

**G ANC boterera heldu ondoren, arrazagatiko segregazioa haustea zen lehentasuna. Zu Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordean aritu zinen. Nolako izan zen prozesu hura?**

**E** Batzordeak pare bat urtean jardun zuen. Presa handiena zuten beharrak konstituzio berriaren azaldu genituen: iraganeko bidegabekeriak aitortzea eta justiziatatik eta askatasunagatik sufritu zutenak omentzea. Bertan adierazi genuenez, Hegoafrika bertan bizi garen guztiona da, aniztasunean batuta. Konstituzio berriarekin, iraganeko zatiketak konpondu nahi genituen, balioko demokratikoetan, justizia sozialaren eta giza eskubideetan oinarritutako gizarte bat eraikitzeko.

Dena den, gatazken osteko adiskidetzeari ez da amaitzen egia- ren batzorde formal batek bere lana amaitzen duenean: martxan jarraitzen duen prozesu bat da. Errepresioa eta bazterkeria sistematikoz egindako zauri asko

urteetan egon dira zabalik, eta desberdintasun sozioekonomikoak ekarri dituzte. Belaualdia- k beharko dira horiek guztiak parekatzeko.

**G Helburua lortu zenutela uste duzu?**

**E** Bere garaian batzordeak adiskidetzeari ekarpen handia egin ziola uste nuen. Oraindik sinesten dut horretan: egiaz, bete dira Hegoafrikako Konstituzioan aipatzen diren helburu batzuk. Dena den, denbora igaro ahala, ANCren gobernuak ez du asmatu lidergo sendoa eramaten, ez eta atzerriko inbertsioak Hegoafrikako ekonomiara erakartzeko ere, lanpostuak sortzeko eta pobrezia arintzeko. Herritar guzti- en bizi-kalitatea ez da hobetu, eta horrek kalte nabarmena egin die adiskidetzeari arloko lorpeni.

**G Apartheid-a amaitu ostean ere, botere harreman ekonomikoetako parekotasunik eza oraindik handia da. Pobrezia, segurtasun eza, langabezia... Arazo larriak dira Hegoafrikari. Nola kudeatu ditu horiek gobernuak?**

**E** 1994tik, gobernuaren estrategia izan da, alde batetik, klase ertain beltza zabaltzea, diskriminazio positiboaren bidez; eta, bestetik, behartsuenen bizi- maila hobetzea, oinarritzko behar- rarak bermatuz: etxebizitza, ura, argindarra... Bi lan horietan arrakasta handia izan du. Dena den, milioika hegoafrikarren bizi- mailak ez du hobera egin: zertarako balio dizu argindarra izateak, ezin baduzu faktura ordaindu? Klase ertaina ia bikoiztu egin da, baina aberatsuen eta behartsuen arteko aldea *apartheid* garaian baino handiagoa da.

**G Gaur egun, arrazen arteko botere harremanak zenbateraino dira nabarmen? Zein eremutan eta nola gertatzen da diskriminazioa?**

**E** Azken 20 urteotan, izugarriko aurrerapenak egin ditugu arrazen arteko harremanei dago- kinez. Hegoafrika oso leku des- berdina da orain, baina gelditzen dira diskriminazio arrasto batzuk. Egia esan, ez da harritzeko, kontuan izanda *apartheid*-eko ideologiak erabilitako propa- ganda zuriak euren nagusitasunaz konbentzitzeko.

Zuri batzuk kexu dira beltzen aldeko politikak baztertu egiten dituztelako. Nik sinpatia diet Hegoafrika libre eta demokrati- ko batera jaio direnei. Zergatik sufritu behar lituzkete euren gurasoek egin edo egin ez zute- naren ondorioak? Baina egia da gehienek jaso dituztela familiako pribilegioak, eta oraindik aban- tailak dituztela beltzekin alderatuta. Gaur egun, Hegoafrikako zatikatutako klasearen araberaokoak dira nagusiki. Baina behartsuen artean, gehiengo handiena bel- tza da oraindik, eta, horrenbes- tez, arrazaren auziak presente jarraitzen du.





Gizon bat protestan, Lurmutur Hiriko etxola auzo baten hustearen aurka, 2011n. NIC BOTHMA / EFE

# Ortzadar lausoa

‘Apartheid’-a erori eta hemeretzi urtera, Hegoafrikan sortu zen itxaropen handia ez da asebeta

Mikel Rodriguez

**A**partheid-a bakutu zenetik, *Ortzadarraren nazioa* esamoldea erabili ohi da anitzetan Hegoafrika izendatzeko. Desmond Tutu gotzainak sortu zuen izendapen hori. Gutxiengo zuriaren erregimen arrazista erorita, Hegoafrika kolore guztietako jendea berdintasunean bilduko zuen nazio gisa azaltzeko metafora izan zen. Nelson Mandelak ere aldarrikatu zuen ortzadarra. Azalaren koloreak pribilegiaroko edo debekurako arrazoi izateari utzi zion, eta proportzioaren logikari jarraituta, 1994tik hauteskundeetan ordezkaritza beltzek lortu dituzte aginte postu gehienak. Baina Mandelak boterea hartu eta hemeretzi urtera, ortzadarra lauso ageri da oraindik. Aberatsen eta pobreen arteko aldea handitu egin da; txiroenen gehiengo zabala beltza da oraindik, eta baliabide ekonomiko nagusiek zuriaren eskuetan segitzen dute. Indarkeria gaitz hedatua da, eta ANC Afrikako Kongresu Nazionalaren aurka ustelkeria salaketa larriak egin dira.

Azken bi hamarkadatan Hego-

afrikako ekonomia ikaragarri hazi da. NDF Nazioarteko Diru Funtzaren iazko datuen arabera, Hegoafrikak munduko 25. BPG barne produktu gordin handiena dauka, eta, Afrikan, zerrendako lehenbizikoa da. Baliabide natural aberatsak dauzka, herrialde industrializatu bat da, finantza sektore egonkor bat du, eta hazteko aurreikuspen onak iragarri dizkiote nazioarteko finantza erakundeek. Meritu horientzat dago BRICS talde boteretsuan, Brasilekin, Errusiarekin, Indiarekin eta Txinarekin batera. *Apartheid*-aren bukaerak sortu zuen Hegoafrikako ekonomiaren aire-ratze pista.

## Hazkundera eta langabezia

Hazkunde hori, ordea, herritar gehienek ez dute gozatu. NDFren arabera, biztanleko BPGaren sailkapenean 81.a da Hegoafrika, eta kontinenteko bortzgarrena. Langabezia tasa %25 ingurukoa da. NDFren datuen arabera, 1980tik 1994ra arte %9tik %22ra igo zen tasa. 2000tik, berriaz, %22 eta %30 artean mantendu da beti. Hazkundera arrakastatsua izan da ANCFren politika, baina integrazioan ez du *apartheid*-aren amaieran sortu zen itxaropena asebeta.

*Apartheid* garaian, bizitzaren esparru guztiak bezala, ekonomia zuriek zuzentzen zuten. Haienak ziren lurra eta enpresa nagusiak. Erregimen arrazista desagertzean, ANCK beltzei zuzendutako programa bereziak paratu zituen martxan, produkzio baliabideen jabetza eta era guztietako lanbideak lortzea errazteko. Beltzen artean klase ertain baten sorrera ekarri zuen horrek, eta, neurri txikiago batean, baita aberatsena ere. Iaz, ordea, hemezortzi urte geroago, Jacob Zuma presidentek ondorio hau jakinarazi zien ANCKo kideei, alderdiaren bilkura batean: «*Apartheid* garaiko ekonomia egitura ia ukitu gabe dago. Ekonomiaren jabetza gehienbat gizonen eskutan dago, beti egon den bezala». Hiru helburu nagusi paratu zituen Zumak bilkura hartan: integrazioarako programak indartzea, lurra erforma bat egitea eta meatzaritzako konpainia handiei mugak paratzea, irabazien «banaketa bizidetzeko» egiteko.

Boterean egin dituen hemeretzi urteetan, ANCK ez die errotik heldu gai horiei. Arrazoi bat baino gehiago aipatu dira: *apartheid*-aren aurkako borroka luzearen ondoren, *bake soziala* hobetsi eta erreforma ekonomiko sakon bat alde batera utzi zutela bai Mandelak, bai ondorengo gobernuak; Mendebaldeko gobernuen, konpainia handien eta nazioarteko finantza erakundeen presioa...

Lurraren erreforma auzi nuklear bat da. 1994an, Mandelak helburutzat paratu zuen 2014rako zuriaren eskutan zeuden lurren %30 beltzen artean banatuak izatea. *Willing buyer, willing seller* politika paratu zuen martxan, hau da, borondatezko eroslea eta borondatezko saltzailea. Iaz, soilik esperotako lurren herena zegoen banatua. Zumak politika aldatuko dutela berretsi du, nola azaldu gabe, eta gero eta ahots gehiagok urteetan saihetsu nahi izan den ispilua ekarri dute gogora: Zimbabwe.

Zimbabwek ere pairatu zuen *apartheid* sistema. 1981ean bota zuen, eta, ordutik, Robert Mugabe da herrialdeko presidentea; polemikoa, eta Mendebaldeko agintariek ez hagitzen maitatua. Mugabek ere hogeitaz inguru itxaron zituen erreforma egiteko, baina errotik heldu zion. Lurjabe handi zuriak lurraz indarrez kendu zizkien.

## Indarkeriaren aldaerak

Iaz, Zumak meatzaritzaren onurak egokiago banatzeko asmoa agertu eta bi hilabetera, sektore horren egoera krudelki azaleratu zuen gertakari batek. Johannesburgotik gertu, Marikana meatzaren Polizia arma automatikoen oldartu zitzaizen lan baldintza kaskarrak salatzearen greban ari ziren meatzariei. 34 langile hil zituzten. Tiroketaren irudiak mundu osoan zabaldu ziren, eta Hegoafrikako hedabide anitzek Shar-

pevilleko sarraskia ekarri zuten gogora—1960an Poliziak 70 manifestari hil zituen, eta inflexio puntua izan zen *apartheid*-aren aurkako borrokan—.

*Apartheid*-ak utzitako arrastoa ere sakona da oraindik. Legezko segregazioa ezabatu arren, zuriaren eta beltzen arteko tentsioa gaiztotu egin da tarteka. *Apartheid*-a erori zenetik, zuriaren nagusitasuna aldarrikatzen duten taldeak agertu izan dira, eta horietako batzuek ekinga armatuak

‘Apartheid’ garaiko ekonomia egitura «ia ukitu gabe» zegoela erran zuen Zumak iaz

1994an helburutzat jarri zuten 2014rako zuriaren lurren %30 beltzei banatzea

ere egin dituzte. Talde paramilitar horietako baten sona handiko buruzagia zen Eugene Terreblanche. *Boer*-a zen bera, afrikaner komunitateko lurjabea ematen zutenen nukleo gogorra ziren boerrak. Terreblanche bi langile beltzek hil zuten 2010ean, laneko auzi baten eztabaida batean. Landa eremuan *apartheid*-aren ondoren ere badagoen gatazka agerrarazi zuen gertakari horrek: langile beltzak kexu dira boerre ezartzen dizkieten lan baldintzengatik, eta boerrek, aldiz, haien aurkako indarkeria salatzen dute.

Baina Hegoafrika astintzen duen indarkeria bakarra ez da *apartheid*-aren oinordekotza. 2008an, Johannesburgoko auzo txiroetan hegoafrikar beltzen taldeek Zimbabweko, Mozambiqueko eta Malawiko etorkiniek eraso zieten. Bi asteetan 60 lagun hil ziren istiluetan, etorkinak gehienak, eta izua hedatu zen immigranteen artean. Bazterkeriarik latzena pairatu zuten kolektibo bateko kideak, bertze kolektibo ahul bati jazarpen ibili ziren hainbat egunez. Zuriaren arrazismoak gobernatu zuen herrialde batean, beltzak beltzen ehizan ikusi ziren mundu osoa zabalduko irudietan. Baina itxuraz zentzugabea zen gatazka horrek erro sakonak zituen, eta berriz ere *apartheid*-aren ondorengo egoera ekonomikoan bilatu behar ziren zergatiak. Beltzen gehiengoak sistema integratu gabe segitzen zuten, eta etorkin lanpostuak lortzeko areriotzat seinaltatu zituzten. ANCK ezkerreko ikuspegi batekin aurre egin zion *apartheid*-ari, baina, boterean dagoenetik, politika neoliberalak aplikatu ditu. Txiroenen arteko lehia sortu du horrek. 1994an ortzadarra agertu zen Hegoafrikako zerruan, baina oraindik ez du Mandelak espero zuen distira hartu.



# Iturri emankorra

Hegoafrikako prozesua eta Nelson Mandela bera inspirazio iturri izan dira Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzeko saioetan aritu diren eragileentzat. Haiengandik jasotako «irakaspenak» azaldu dituzte



Kgalema Motlante ANCKo idazkari nagusi ohia eta Joseba Alvarez ezker abertzaleko kidea, Hegoafrikako Pretoria hirian, 2007an. BERRIA

## J. Sagarzazu-E.Begiristain

**N**elson Mandelarengandik eta Hegoafrikako prozesutik atera daitezkeen irakaspenei buruz galdetu die BERRIAK Jonan Fernandezi, Pernando Barrenari eta Paul Riosari.

### JONAN FERNANDEZ

Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia

«Hemen ere azken emaitza bera lortu beharko genuke»

«Gatazka egoerak gainditu eta bakea sendotzeko bidean erreferenteetako bat izan da Mandela». Modu horretan deskribatu du Jonan Fernandez Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako

idazkari nagusiak hil berri den Hegoafrikako presidente ohia. Fernandezek dioenez, gatazkarren konponbidean buru-belarri lanean ari diren Euskal Herriko eragileek «irakasgai» asko atera ditzakete Mandelaren ibilbidetik, baina guztien artetik garrantzitsuena haren «itxaropena» da. «Askotan neure buruari galdetu izan diot gizon honek 23 urte kartzelan zeramatzean zer pentsatuko ote zuen egindako borrokari buruz. Eta, hala izanda ere, lanean jarraitu zuen, emaitza zein izango zen jakin gabe».

Mandelak Hegoafrikako gatazka politikoa gainditzeko egindako lana goraiatu du Bake eta Bizikidetzarako idazkariak, eta uste du Euskal Herriatik begiratu ta badagoela zer ikasi. «Mandela maiz haizearen kontra ibili zen,

baita bere aldekoen jarreraren aurka ere. Kartzela barrutik eta kanpotik lidergoa hartu zuen bakearen eta adiskidetzaren alde». Horixe da, haren aburuz, Euskal Herrian jarraitu beharreko ereduak: «Ausardia eta tinkotasuna gakoak dira horretarako».

Hegoafrikako bake prozesutik, berriz, hiru irakasgai atera ahal direla uste du Fernandezek. Lehen, giza eskubideen aldeko erabateko konpromisoa. Bigarrena, elkarrizketa eta akordioaren bidea eredu gisa hartzea. Hirugarrena, gorrotoaren eta arazo guztien gainetik gizartearen bizikidetzara lortzeko ahalegina. Edozein herrialdetako bake prozesuetatik irakasgai horiek atera behar direla dio Fernandezek.

Biktimen auzian Hegoafrikar Egiaren Batzorde bat eratu izana

eredugarritzat jo du, bestalde. Euskal Herriko eta Hegoafrikako prozesuen artean alde handiak egonda ere, irizpide orokorrekin he-men ere balio dutela uste du. «Ez dakit hemen formula bera erabiliko dugun, baina azken emaitza lortu beharko genuke, hots, urratu diren giza eskubide guztiak azaleratu beharko dira, eta berri- ez dela gertatuko ondorio gisa atera beharko genuke».

### PERNANDO BARRENA

Ezker abertzaleko kidea

«Ikasi dugu negoziatorik zailenak direla zure jendearekin egiten dituzunak»

90eko hamarkadaraino egin behar da atzera ezker abertzalearen eta Hegoafrikako ANC alderdiaren arteko harremanen jatorria

ezagutzeko. Orduan «azalekoak» ziren hartu-eman horiek, Pernando Barrenak gogoratu duenez. Baina horiek sendotzen joan ziren, bereziki, ezker abertzalea Irlandako bake prozesua gertutik jarraitzen hasi zenean. Barrenaren arabera, irlandarrentzat oso garrantzitsua izan zen Hegoafrikako ereduak, eta ezker abertzaleak ondorioztatu zuen bi esperientzia horietatik «elika» zitekeela Euskal Herrikoak.

2002an, adibidez, Hegoafrikar izan zen ezker abertzaleko ordezkari bat, aurreneko aldiz. ANCKo kideekin eta gobernukoekin biltzea lortu zuten. Emaitza «positiboa» izan zen, eta urte berean eginiko beste bidaia batean Mandelarekin berarekin izan ziren. Barrenak azaldu duenez, Mandelak hitzeman zien bere eskura zeukan guztia egingo zuela Euskal Herriko gatazka konpontzeko. Ahalgin hori Aieteko Bake Konferentzian islatu zen. Besteak beste, Mandela Fundazioa konferentziaren prestaketa lanean aritu zen.

Ezker abertzaleak Hegoafrikako prozesutik eta Mandelarengandik berarengandik «asko ikasi» duela azaldu du Barrenak. «Saiatu gara batzen irakaspen horiek Irlandako prozesuan ikasita-koekin». Baina Hegoafrikatik bat nabarmentzekotan, honako hau nabarmendu nahi izan du: «Ikasi dugu negoziatorik zailenak direla zure jendearekin egiten dituzunak». Hori entzutea «arraro» egin zitzailela aitortu du Barrenak, baina gerora konturatu direla hori hala dela. «Mugimendu politikoa batek, estrategiari dagokionez, urrats handiak ematean, behar-beharrezkoa du etxe barruko kohesioa, barne demokrazia eta oso modu adostuan aurrera egitea».

Era berean, beste irakaspen bat azpimarratu nahi izan du ezker abertzalekoak. Negoziazio prozesuei dagokien irakaspen bat. «Negoziazioetan saiatu behar duzu zure planteamendutik ahalik eta etekin handiena ateratzeko, baina, era berean, zure etengabeko kezka izan behar du zure areriko politikoa ere nahikotasun mailak lortzeak. 'Nik irabazi zuk galdu' eskemak ez du ezer konpontzen. Alde guztiek irabazi behar dute; nahikotasunak lortu behar dituzte hortik aurrera jarraitzeko». Bi irakaspen horiek ezker abertzaleak egin duen strategiaren «ego-kitzapenean» islatuta geratu direla azpimarratu du Barrenak.

Halaber, azaldu du gatazkarren konponbideari buruz, gatazkarren gakoie buruz ere hainbat irakaspen atera ditzutela Hegoafrikatik. Haren hitzetan, ideia batek barnebiltzen ditu denak: akordio-rako borondatea. Barrenak presoen auzia aipatu du aurrean. «Ezin da egoeraren normalizazioaz hitz egin presoen egoera konpondu gabe. Hala gertatu zen Hegoafrikar, eta hala gertatu behar du





Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohia eta Desmond Tutu artzapezpikua, 2008an, Lurmutur Hirian. JON BERNARDEZ

Euskal Herrian ere. Gatazka politikoa baita, eta preso dauden horiek preso daude arrazoi politikoengatik». Gakoen artean, beste bat nabarmendu nahi izan du Barrenak, biktimekin eta bizikidetzarekin lotura dutenak. Haren iritziz, Hegoafrikan bezala, Euskal Herrian ere Egiaren Batzorde bat osatu beharko litzateke. Egia osoa ezagutzeak eta aitortzeak ekar dezake, Hegoafrikan bezala, alde guztiek barkamena eskatzea. «Baina barkamena eskatzea erabaki pertsonal bat da. Ez da balio politikoa bat».

Azkenik, Hegoafrikako prozesutik beste ondorio bat ateratu du Barrenak. «Prozesu guztietan pazientzia beharrezkoa da. Nahiz eta badakidan giza egoera delikatuaren dauden pertsonen hori eskatzea gehiegi eskatzea dela». Eta Mandelaren hitzak gogoratu, honako hau gaineratu du: «Mandelak esaten zuen denak ematen duela ezinezko, lortzen den arte. Hori da filosofia eta bidea».

#### PAUL RIOS

Lokarriko koordinatzailea

#### «Etsai sutsuenek hitz egiteko kapaz izan behar dute»

Paul Rios Lokarriko koordinatzailearen ustez, Nelson Mandela erreferentia da Euskal Herrirako, «elkar ulertzeko eta adiskidetzeko egin zuen ahaleginagatik». Lokarriko buruak argi dauka Hegoafrikan bezala, «gorrotoa eta mendekua» bilatu ordez, «beste alde ulertzen saiatzeak» izan behar duela Euskal Herria eraikitzeke eredu. Riosentzat azpimarragarria da Mandelak berak Hegoafrikako bake prozesuaren eredu gatazka zituzten beste herrialde batzuekin partekatzeke egindako lana. Ipar Irlandan, esaterako, unionisten eta errepublikanoen arteko zubiak eraikitzen lagundu zuela gogoratu du. Bi herrialde horie-

tako prozesuek badute isla gurean, haren aburuz: «Biek ala biek erakusten dute etsai sutsuenek ere hitz egiteko kapaz izan behar dutela eta hori elkarrekiko errespertuari eta bizikidetzari esker lortu behar dela».

Biktimen gaien Hegoafrikan sortutako Egiaren Batzordea ere eredugarritzat jo du. Riosen ustez, batzorde hark erakutsi zuen iraganari «zintotasunez» eta «egia osoa jakiteko borondatekin» begiratu behar zaiola. Hala ere, uste du Hegoafrikako Egiaren Batzordeak justiziari ez ziola eman behar besteko garrantzia. «Gure kasuan, ezinbestekoa da

egia jakitea, baina baita erreparazioa eta justizia lortzea ere, iraganaren irakurketa orekatua egin nahi badugu».

Riosek ezagutzen ditu Roelf Meyer Hegoafrikako ministro ohi eta bake prozesuan *apartheid*-eko gobernuaren ordezkari izan zena eta Brian Currin abokatu eta bitartekaria. Haiengandik «irakaspen handiak» jaso ditu: «Egoera latzenetan ere, konponbidearen aldeko usteari eta pazientziari eutsi behar zaiola esaten zuten». Etorkizunari buruz ere bada irakaspenik: «Gizartearen zati garrantzitsu bat kanpogan utzita ezin dugu geroa eraiki».

## «Hegoafrikan ikasi nuen bakea eszenaratu egin behar dela»

Mandela gizon handia zen, santua; baina haren santutasuna sortzea erabaki politiko bat izan zen». Juanjo Olasagarre idazlearenak dira laudorioa eta nabardura. Olasagarre 1996an izan zen Hegoafrikako egoera ezagutzen, eta bisita haren emaitza izan zen *Mandelaren afrika* liburua (Susa, 1998), Nelson Mandelaz eta Hegoafrikaz euskaraz dagoen erreferentzia bakanetakoa. «Altuera moral ikaragarria zuen», jarraitu du Olasagarrek Mandelaz. Ez zion uko egin bere iraganari —borroka armatuari eta hura zuritzeari—, «baina Mandelak bere iragana gainditu egin du; oso gizon berezia izan zen».

Hegoafrikan bakerako eta adiskidetzeko tresnak sortu zituztela nabarmendu du Olasa-

garrek. Tresnen artean aipatu ditu Mandela bera eta Egia eta Adiskidetzeko Batzordea.

Tresnak bakarrik ez. Gizartearen eskaria ere bazegoen. Hegoafrikako bake eta adiskidetzeko prozesua sarritan aipatzen da Euskal Herrirako eredu gisa. Olasagarrek gogoan du 1996an Hegoafrikako gizartearen nabaritu egiten zela «bateratze eta adiskidetzeko» giroa: «Hegoafrikan ikasi nuen barkamena eszenaratu egin behar dela». Sufrimendua aitortu, finean. Gogoan du nola 1996 eta 1998 artean herriz herri auzialdiak eta epaketak antolatu zituzten, biktimiek 1960 eta 1993 arteko gehiegikerien berri emateko eta borroeroek krimenak aitortzeko. Krimenen egileetako batzuek amnistia jaso zuten.

■ JAKES GOIKOETXEA

## Mandela eta haiek

Jose Mari Pastor  
Kazetaria

Due la bost urte arte, Nelson Mandela terrorista zen AEBentzat. 2008an terroristen zerrendatik kendu zuen Washingtonek, hark 90 urte betetzearekin batera. Ordura arte, Mandelak baimen berezia behar izaten zuen NBEra joateko, New Yorkera. Hego Afrikako presidente ohia, Bakearen Nobel saria jaso, terrorista AEBen begietan.

Hegoafrikako liderraren heriotza mundua astindu du. Tristezia eta doluminak nagusitu dira bazter guztietan. Hedabide eta politikariek hura goraiatu dute, baina haien kontaketa, gehienguan, hutsune nabarmenak ditu. Haietako bat, Mandelaren iragan terrorista. Mandelak borroka armatua erabili zuen —Madiba laudatzen dutenek terrorismoa deitzen diote horri beste leku batzuetan—. Hark sortutako MK Nazioaren Lantza erakundeak lagun asko hil zituen. Haietako 30 inguru ziren Armada edo Poliziako kideak. Mandelak espetxetik irten eta gero esan zuenez, zibilien hilketak —istripuak, haren hitzetan— «ondorio saihestezinak» ziren: «Giza hutseginkortasuna gerraren alde bat da, eta horren prezioa altua izaten da beti». Hegoafrikako Armadako eta Poliziako kideak hiltzea edo zauritzea, bestalde, lezio modukoa zen, hark azaldu zuenez: «txera bizirik baina gorputz-atalak ebakita itzultzen zirenak ikustean, herriko gazteak ez ziren Armadan sartuko».

Hegoafrikako presidente arrazista PW Botha indarkeriari uko egiteko eskatu zion Mandelari, negoziatzeko baldintza gisa. Hark ezetz erantzun zuen: «Uko egiozue zuek *apartheid*-ari». Borroka armatuaren ekarpena bere egin zuen, akatsak akats eta sufrimendua sufrimendua. Bakea eta berradiskidetzeko bultzatu zituen, iragana testuinguru histo-

«Nola onartu Hegoafrikan umeak hiltzea 'istripua' zela esatea, baina hemen ez, kontraesanean erori eta maskara pitzatu gabe?»

rikoan kokatuz eta hura gaitzetsi gabe.

Mandelaren nazioarteko lagunik onena Fidel Castro izan zen. Mendebaldeak ez zuen hori gus-tuko. Kuba izan zen 1990ean askatu eta hilabete gutxira bisitatu zuen lehen herrialdeetako bat. 1991ko uztailearen 26an, Moncada-ko kuartelko erasoaren urteurrenean, eskerrak eman zizkion Kubari, Cuito Cuanavaleko batailan Hegoafrika garaitu eta geroko garaipenaren oinarriak ezarri zituelako: «Kubako Iraultza inpirazio iturria izan da askatasuna maite duten herrientzat». Munduko potentzia handieneko lehendakaria isilarazi duen agintari bakarra izan da Mandela. 1998an, Clinton kezatu egin zitzaion Kubarekin lotura handiak zituela eta. Mandelak argi erantzun zion: Mendebaldeko hainbat estatutara laguntza eske joan zenean ezer gutxi lortu zuen. Kubak elkartasun internazionalista eskaini zion, eta hark Kubaren adiskidea izaten segituko zuen. Hor konpon. Clinton isildu egin zen. Kubaren kontrako bahimendua bultzatu zutenek ez zuten berdin jokatu nahi izan Hegoafrikaren kontra, herriar xumeek sufrirituko zutelakoan. Kubako herriarren sufrimenduak berdin ziren. Argi zegoen sistema bat bota nahi zutela, eta besteak bizirik irauteak ez zituela hainbeste kezkatzen.

Mandelaren bidea deseroso zaita diskurtso ofiziala hedatzen dutenei. Ez dute osotasunean hartzen. Ez digute esaten borroka armatua ez zuela arbuia; ez digute haren atentatuak irudi odoltsurik agertzen teletelastan, ezta haren indarkeriaren biktimen senideen samina ere. Zer esango zuten 1985eko Eguberrien bezperan, Durban hegoaldeko Amanzimtoti herriko merkatari-tza gunean, MK erakundeak zakkarrontzi batean jarritako bonbak hil zituen hiru umeen gurasoek? Ez al dago Irene Villarik Hegoafrikan? Nola azaldu gorrotoari atea itxi zionak ez zuela iraganeko borroka gaitzetsi? Nola onartu Hegoafrikan umeak hiltzea «istripua» zela esatea, baina hemen ez, kontraesanean erori eta maskara pitzatu gabe? Gure errealitatearekin lotura edo konparazio txikiena ezabatzeko asmoz, hauxe ere ahaztu dute hemengo hedabide eta politikari gehienek: Mandela fundazioak sinatu egin zuela bake prozesueta-rako nazioarteko liderrek 2010ean aurkeztutako adierazpe-na. Mandelak «Europako azken gatazka» konpontzeko eskatu zuela, elkarizketaren bidez. Mandela, 90 urte izan arte *terrorista* izan zen gizona.



Mandelaren leihoa litografia, berak marraztua, kartzelako leihoitik ikusten zuena irudikatuz. NICK BOTHMA / EFE

237  
500

## Piketetik pantaila handira

### Analisia

Martxelo Otamendi

BERRIAKO zuzendaria

Mandelaren auzia mundu guztian zabaldu zela esatea asko izan liteke, baita askatu aurreko hilabeteetan ere, baina oso buruzagi preso gutxi lortu dute bere aldeko askatasunaren aldarriaren inguruan horrenbeste jende eta agintari biltzea.

Ez zen, ordea, beti horrela izan. Kausa askotan talde txiki bat egon ohi da hasieran eragiten, askotan bakardade handi eta hotzean. Urte batzuk horrela pasatu ondoren, gero, batzuetan zergatik gertatzen den inork ez dakiela, elkartasun taldea handituz doa, azkenean oso jendetsu bihurtzen da, eta sekulako hedadura hartzen du nazioartean. Mandelaren ere horrela gertatu zen.

Londresen zeukan, eta dauka, Hegoafrikako Gobernuak enbaxadarak garrantzitsuena, Trafalgar Squaren, National Galleryren ondo-ondoan. *Apartheid* garaia zen, 1986ko udan, eta bi eskuetako hatzekin zenba zitezkeen enbaxadaren kanpo aldean «*Free Mandela*» eta «*Release Mandela*» (Mandela askatu) oihukatzerak biltzen zirenak.

Lehendabiziko hilabeteetan, elkarretaratzea egitera mugatzen ziren enbaxadaren aurrean, ostiral eta larunbat arratsaldeetan, *bobby*-en begiradapean. Bigarren fasean, luzatu egun zuten ordutegia, eta azkeneko eguneko 24 orduetan, beti bazegoen norbait piketean. Baina sekula ez ziren jendetsuak izan protesta horiek.

Zer gertatu zen, bat-batean, mundu erdia Mandelaren askatasunaren alde jartzeko? Zer tekla ukitzen zu-

ten, eta nork eta non, makinaria buruzagiaren alde jartzeko?

Askotan aipatu izan dut zineak horrelako prozesuetan izan duen eragina. Nabarmena izan zen, oso urte gutxian, Ipar Irlandako gatazkarekin lotuta egin zituzten dozena erdi filmek arazoa zabaltzen eta mundu erdiko kontzientziak pizten eduki zuten eragina. *In The Name of The Father*, *Some Mother's Son*, *The Boxer* eta *Hidden Agenda* dira begiak irekitzen lagundu zigutenetako batzuk.

Beste horrenbeste Hegoafrikarekin. *Cry Freedom*, *Goodbye Bafana*, *Catch a Fire* eta beste film batzuek lan handia egin zuten *apartheid*-a borrokatzen. Kantariek eta horien hitzek egin zuten bezala, arazoaren berri ematen, salaketara jendea biltzen. Zaila dago jakitea zerk eragiten duen, denbora laburrean, piketea zena jendetza izaten.

### ↓ Mandelaren esanak

« Munduan ez dago indarririk bere askatasuna lortzeko erabakia hartu duen gizarte zapaldua geldiarazteko ».

1961EKO EKAINEAN, HEGOAFRIKAKO LEHEN MINISTRO HENDRIK F. VERWOERDI BIDALITAKO GUTUNEAN

« Jabetu ginen tiranoaren basakeria emulatuz gu ere basati bihurtuko ginela ».

IRLANDAKO PARLAMENTUAN, 1990EKO HAMARKADA HASIERAN

« Gizarte batek ez luke inoiz berriro baimendu behar kontzientzia presorik egoterik edo inoren giza eskubideak urratzerik ».

1993AN, BAKEAREN NOBEL SARIA JASOTZEAN

« Sionismoak aberri propioa, estatu propioa, eskatzen duen komunitate juduaren eskaria islatzen badu, aldekoa naiz. Baina beste herri batzuen lurrak konkistatzea esan nahi badu, kontrakoa naiz ».

1993KO URTARRILEAN

« Heriotza saihestezina da. Gizaki batek bere herriarekiko egin behar duena egin duela uste duenean, lasai hil daiteke. Uste dut ahalegin hori egin dudala, eta, beraz, betiko lo egin dezaket ».

1994AN, DOKUMENTAL BATERAKO EGINIKO ELKARRIKETAN

« Inor ez da jaiotzen beste pertsona bat gorrotatuz. Jendeak ikasi egin behar izaten du gorrotatzen. Beraz, maitatzen ere ikas dezake, giza bihotzarentzat naturalagoa delako maitasuna ».

« Etsaiarekin bakea egin gura baduzu, etsaiarekin lan egin behar duzu. Horrela, zure lankide bihurtuko da ».

« Libre izateko ez dira soilik norbere kateak hautsi behar, besteen askatasuna errespetatu eta babesten duen bizimodua bizi behar da ».

« Pertsona ausarta ez da beldurrik ez duena, beldurra menperatzen duena baizik ».

'LONG WALK TO FREEDOM', LIBURU AUTOBIOGRAFIKOA, 1994

« Iritsi da zauriak osatzeko garaia. Iritsi da banatzen gaituzten amildegietan zubiak egiteko garaia. Eraikitzeko garaia da ».

PRESIDENTE KARGUA HARTZEAN, 1994AN

« Atzo 'terrorista' deitzen zidaten. Baina kartzelatik ateratzean, jende askok besarkatu ninduen, nire etsaiak tartean, eta horixe bera esaten diet euren herrialdean askatasunagatik borrokatzen ari direnei 'terrorista' deitzen dietenei ».

2000KO MAIATZAREN 16AN, 'LARRY KING LIVE' PROGRAMAN

« Gizarte hezi, kultura eta ondo informatu bat izatea da demokraziaren osasuna bermatzeko modurik seguruenetako bat ».

JOHANNESBURGO, 2003

« Hezkuntza da mundua alda dezakeen armarik indartsuena ».

HEGOAFRIKAKO WITWATERRAND UNIBERTSITATEAN, 2003

« Pertsona bati ulertzen duen hizkuntza batean berba egiten badiozu, burura doakio zuzenean mezua. Bere hizkuntzan berba egiten badiozu, bihotzera doa zuzenean ».

« AEBek edo Erresuma Batuak bozak badituzte, ez dute Afrika edo Asiako begiralerik eskatzen. Baina guk ditugun begiraleak nahi dituzte ».